

Bero-beroan

Estebe Eiherabide EEPko zuzendari berria

JEAN CLAUDE IRIARTEK urriaren 16an Euskararen Erakunde Publiko-ko zuzendari kargua utziko du Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia-arentzat hasiko delako lanean. Kontseilu Nagusian hezkuntza gaietako arduraduna izango da Baionako egoitzan. Iriarteren lekukoa hartuko du Estebe Eiherabidek.

Patxi Uribarren euskaltzain berria

HENRIKE KNÖRR zenaren aulkia beteko du Patxi Uribarren aramaior-rrak (1942). Euskaltzain oso izateko proposatu dute Jose Luis Lizundia,

Andoni Sagarna, Sagrario Aleman eta Jean-Louis Davantek.

Corpusa, kitxua eta aimara atzerrian irakasteko

MIRIAM YATACOK, Long Island Universityko soziolinguistak, eman du corpusaren berri (<http://nilavigil.wordpress.com>). Alegia, corpus linguistiko-pedagogikoa lantzen ari dira kitxua eta aimara atzerriko hizkuntza moduan unibertsitateetan irakasteko. Berak dioenez, bai Amerikako Estatu Batuetan eta baita European ere gero eta irrika gehiago aztertzen dira Hego Amerikako hizkuntza indigenak. Gero eta metodo gehiago daude

sarean hizkuntzok ikasteko. Hara adibide bat: www.ilcanet.org/cibe-raymara/

Iruñerriko Kultur Zirkuitua

URRIAREN 22 ARTE hainbat abenturazalek euren bidaiak kontatuko dituzte. Iruñerriko zenbait elkartetek, Topagunea Euskara Elkarteen Federazioarekin elkarlanean, antolatuko dute ekimena eta helburua euskara sustatzea izango da. Besteak beste, Alberto Inurrategik *Begiz Begi* aurkeztuko du, Jose Ramon Agirrek Zeelanda Berrira eramango gaitu eta Amets Arzallusek eta Txomin Txuekak *Illimani: Boliviako hizpiak eta hizkiak* diaporama erakutsiko dute.

TALAIAN

Euskadiko Kutxaren gardentasuna

Erakunde finantzarioak garden aritzea ez da ohikoa izaten, batez ere euren irudiarri negatiboki eragiten dioten datuei buruz hitz egiteko garaian. Gardentasunak, halere, beti edozein erakunderen irudia hobetzen laguntzen du, batez ere finantzarioen kasuan. Horregatik, iragan astean Euskadiko Kutxa erakundearen gardentasun adibidea nabarmenduko dugu oraingoan. Aurtengoa ez da banketxe horren urterik onena izaten ari, kiebra garrantzitsuak eta ordainketa-etendura azpimarragarriak zuzenean eragin baitio. Grupo Mondragón-eko kreditu kooperatibak iragan astean onartu zuen Lehman Brothers-en 162 milioi euro zeuzkala bonotan. Azken hori Ipar Amerikako erakunde finantzario garrantzitsuenetarikoa da eta zabor hipoteken ondorioz orain gutxi porrot egin du. Euskadiko Kutxak, bestalde, Urazca higiezinaren enpresaren ordainketa-etendura dela eta beste 73 milioi galdu ditu.

Euskadiko Kutxa izan da lehenengo erakunde finantzario euskalduna, eta Espainiar Estatuko lehenengotarikoa, Lehman Brothers-en porrotak ekar diezazkiokeen arriskuak publiko egin dituenak. Espainiar Estatuko banku eta aurrezki kutxa ugari iparamerikar bankuen kiebrak ere eragin diela gauza jakina da; hala ere oraindik ez dute publiko egin galdutako milioi kopurua. Euskadiko Kutxak ziurtatu duenez, egoera honek ez du inongo arriskurik euren bezeroentzat, erosketa hau interes tipoen jaitzietan operazioetara zuzendu baitzen, eta ez inbertsio fondo, bezeroen pentsio edo baloreetara. Gainera, arrisku horiek estaltzeko beharrezko aurreikuspenak hartu dituela adierazi dute. Euren arriskuak publiko egitearekin Euskadiko Kutxak erakutsitako gardentasuna eta gaurdaino erakutsitako gestio serio eta profesionalak bezeroen konfiantza mantentzen laguntzen dute. Nire konfiantza badute.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Xavier Rubert de Ventós-ek *El País*-en esanak: “Norbaitek esan zuen ‘hizkuntza Armada duen dialektoa’ dela. Manifestuak idazten dituzten hainbat espainiarrek, ez hain agerikoak eta liskartiak, badirudi ulertu dutela ‘hizkuntza Estatuak daukan dialektoa’ dela. Bada guk ere, katalanok, hizkuntza izateko Estatuak behar badugu, lor dezagun, eta gainerakoa emango (eta onartuko) zaigu. Horretara garamatzate Fernando Savaterren argudioek: ‘Koska ez da –dio berak– elebitasuna, inondik ere, nazionalistek euren autonomiei ezarri nahi dieten *biestatismoa* baizik’”.

Juan Kruz Igerabidek *Deia*-n esanak: “Labur eta sinpleki esanda: deklinabideko kasu guzti-guztiak hutsik egin gabe ikastea bezain garrantzizkoa da, edo gehiago balio du, eskutitz bat ondo egiten ikasteak edota jendaurrean ondo hitz egiten jakiteak. Gramatikaren funtzionaltasuna aldatu da”.

Ibarretxe-Lopez, lehia zabalik da jada

JUAN JOSE IBARRETXE laugarrenoz EAJren hautagaia izango dela jakin ondoren, saio berri honen ezaugarritzea da orain airean geratzen dena. Joango da zehazten apurka, baina beti ere EAJren baitan diren bi sentsibilitate nagusien nahietara egokitu beharko da: Ibarretxek berak azken bi legealdietan gidatu duen ikuspegi soberanista eta gaur egun EBBk ordezkatzen duen EAJren ohiko pragmatismoa.

Lehenik eta behin, pragmatismo horrek hauteskondeetarako Ibarretxeren hautua egitearen aldeko apustua dakar, batzuetan deserosoa izanagatik ere, jeltzaleen artean egun dagoen liderrik sendoena delako. Eta, bestetik, PSOE eta PPren botoei aurre egiteko, egungo Ajuria Eneko maizterra delako boto bilketarako apusturik eraginkorrena.

Horren lehen adierazlea EA da: Joseba Azkarraga hasi da jada EAJrekin koalizioan joateko kanpaina egiten. Eta EAK bakarrik joatea erabakita badu ere, oso posiblea da azkenean 2001eko eta 2004ko koalizioa berriz errepikatzea.



Bere alderditik harago ere Ibarretxek badu irudi on eta jarraitzaileak, eta egia esan indar abertzaleek beharko dute tiradizorik PSEren bultzadari eusteko. Egia da Patxi Lopez oso urruti dagoela Ibarretxek duen karismatik, baina egia da baita ere PSE gorako emaitzak ari dela erakusten azken hauteskundeetan, izan hauek mota batekoak edo bestekoak. Haga horri eusten diote sozialistek tinko, esanez gizarte aldaketaren fruitu direla emaitzok eta abertzaleak ez direla hortaz ohartzen. Patxi Lopezek irudi sendoa irabazi du sozialisten baitan, baina hala ere, lehendakartzarako hautagaitza hobea ere aurkez zezaketela entzun izan da, batez ere Bizkaia aldean: Eduardo

Madina moduko apustu gazte batekin, PSEk alternatiba sendoagoa osatuko lukeela uste du askok.

Ibarretxeren popularitateak jeltzaleen lerroak samur gaintzen baditu ere, Ibarretxe Plana eta Kontsulta Legearen porrotek asko higatu dute bere irudia, batez ere printzipioetako tinkotasun hori praktika politikoan oraingoz jarraipenik ematen asmatu ez duelako.

PSEri ez zaio komeni PPrekin 2001eko koalizio espainiarzalea eratztea, baina sakonean orduan eskaintzen zuten apustu bera da euskal gizarteari eskaintzen diotena, batez ere PSOEK Loiolako prozesua guztiz baztertuta duenean.

2001ean bezala, oraingoa ere lehia zorrotza aurreikusten da, areago oraindik ENAMek bere ordezkaritza eratzeko zailtasun oso handiak izango dituenen. Zentzu honetan, ezker abertzalea jadanik zerrenda erabat garbia prestatzen hasia dela argitaratu zuen joan den igandean *El País*-ek. Zerrenda osatuta ere, denak adierazten du oraingoa ez zaiola ubiderik utziko.

**gure!
arteak
euskaraz**



BFA DFB
Bizkaiko Foru Alkartasuna
Diputación Foral de Bizkaia